

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Produktu hau hainbat bezerori zuzenduta dago. Lehenik eta behin, garraio publikoko enpresei, hau da, bidaiarien segurtasuna hobetzen eta garraio-hornitzaile seguru eta fidagarri gisa duten irudia indartzea bilatzen duten autobus enpresek.

Bigarrenik, gobernuak eta udalerrak daude. Hauek interesa izango dute garraio publikoaren azpiegituran hobekuntzak ezartzeko, delituen eragina murrizteko eta herritarrek zerbitzu horien erabileran duten konfiantza handitzeko.


Azkenik, segurtasun-irtenbideak eskaini nahi dituzten enpresak, teknologia hori garraio-zerbitzuetan integratu nahi dutelako.

Gure bezeroen lehentasuna (autobus enpresak) da bidaiarien segurtasuna, hau da, segurtasuna areagotzen dituzten sistemetan inbertitzen dute. Bestalde, erabiltzailearen esperientzia hobetu nahi dute, ingurune seguruagoak eta fidagarriagoak sortuz. Gainera, delinkuentzia murrizteko eta espazio publikoetan giro segurua sustatzeko interesa dute. Azkenik, berrikuntzan eta eraginkortasunean interesa dute.

Alertadun eserlekuen sistema zaila izan liteke herrialde batzuetan martxan jartzea, bereziki garraio publikoa ondo garatu ez den edo baliabide gutxi dituen herrialdeetan, hala nola Afrikako, Asiako edo Latinoamerikako leku batzuetan. Leku horietan, teknologia instalatzearen eta mantentzearen kostua arazo bat izan daiteke, eta, agian, ez da lehentasuntzat hartuko arazo larriagoak badaude.

Gainera, teknologia hain hedatuta ez dagoen herrialdeetan, sistema erabiltzea ere zaila izan daiteke. Halaber, garraio publikoa eraginkorra ez den lekuetan edo ustelkeria handia dagoen lekuetan, zailagoa izan liteke teknologia mota hori ezartzea.

Hala ere, gure produktuak ondo funtzionatuko luke garraio eta teknologia aurreratuko herrialdeetan. Adibidez, Europako herrialde gehienetan garraio publikoa modernoa denez eta teknologia berritzailea aproposa izango litzateke. Gainera, erraz inplementatuko litzateke, garraio-azpiegitura eraginkorrak dituzten eta konponbide teknologiko berriak azkar hartzen dituzten herrialdeak baitira. Herrialde horiek beharrezko baliabideak eta ingurune egokia dute garraio publikoan segurtasun-sistema horiek martxan jartzeko.



Etorkizunean beste herrialdetara ahilegatzeko helburua dugu.